

# Bitartean heldu eskutik

KIRMEN URIBE

 **Susa** poesia

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.  
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:

<http://susa-literatura.com/ebook>

© 2001 Kirmen Uribe

© edizio honena: Susa

cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu

<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

Lehen edizioa paperean: 2001eko azaroa

Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz

Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea

Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu

Telefona: 943 83 26 55

Elektroposta: [susalit@armiarma.com](mailto:susalit@armiarma.com)

Webgunea: <http://susa-literatura.com>

# ZUBIAK

Bitartean. Bitartean. Hitz handiosak (Kultura, Artea, Herria, Maitasuna...) mesfidati begiratzan hasi ginenean, sinesmen horiek (edo sineskeria, berdindio) galtzen hasi ginenean, ez gintuen hartu inolako depresio izugarrik. Garrantzizkoena genuen oraindik: bizitza (ez Bizitza, jakina, ezta orain eguneroko bizitza deitzen den mamu hori ere). Bizirik gaude eta bizitzera kondenaturik, Margaret Atwood-ek esan bezala. Emozioak eta sentrazioak geure-geureak dira oraindik. Eta keinuak. Horregatik, bizirik gauden bitartean ez ditugu nahi (ez ditugu behar) hitz handios horiek. Ez dugu Maitasunik eta kontu faltsurik nahi, baina maitasunaren keinurik gabe ezinezkoa litzateke aurrera egitea, gure bizitzaren bukaera (egia bakarra) iritsi bitartean heldu eskutik, hori da zintzoki eska dezakegun gauza bakarra. Eta bat-batean *bitartean* hitz xumea eta ezdeusa hitz potolo horiek guztiak baino mila aldiz esanguratsuago egiten da gure begien aurrean, gauza gehiago esaten die *bitartean* hitz ustez errazak gure buru-bihotzei diskurtso ustez

bukatu eta ustez koherente horiek guztiek baino. Bu-  
kaera iritsi bitartean heldu eskutik, idatzi poema be-  
rriak, etorri afaltzera, lagundu hondartzara, irakurri  
egunkaria eta izutu, irakurri beste gauza batzuk (ba-  
tez ere) eta gozatu, barre eta negar eta dantza egin,  
bizi, esan.

Esan. Esan. Baina askotan ezin da esan. Ezin da  
ezer esan. Hitzak hor daude eta gauzak ere bai, hala  
dirudi behintzat, baina Kirmen Uribek ongi esaten  
duen bezala:

*Uholak eraman du hitzen eta gauzen arteko zubia*

W.H. Auden-ek, beste batzuen artean, erakutsi zi-  
gun aspaldian gauza bera. Horregatik, agian, orain-  
dik gutxi batzuek aitortzeak ere lotsa ematen duen  
zeregin hauetan ematen ditugu orduak, poemak idaz-  
ten ditugu hitzen eta gauzen arteko zubi hondatuak  
berreraikitzeke. Eta zubi horiek berriro altxatzeko hi-  
tzak destoxikatu egin behar ditugu, garbitu, errealita-  
tearen hondamendiak eta zatiketak hizkuntzaren  
hondamendia eta zatiketa ekarri digulako ezinbestez.  
Egiten ditugunak saiakerak baino ez dira, baina bizi-  
tza bera saiakera baino ez da. Inoiz ez dira hain lotu-  
rik egon idaztea eta bizitzea. Egiaren eta gezurraren

haraindi, hitzaren balio magikoei buruzko teoria aspergarriak irribarrez entzuten ditugularik, gure asmoa xaloagoa da eta, aldi berean, guztiz ausarta:

*Gizakia ekarri munduaren neurrira*

Baina ez betiko gizaki abstraktu eta aidezko hura, erabat gorrotagarria (agian mesprezagarria esan beharko nuke hobeto). Liburu honetan ez dago Gizakirik, liburu honetan gizon-emakumeak daude, adin guztietakoak, jatorri guztietakoak, leku zehatzetan bizi eta hiltzen direnak, gorputza dutenak. Auskalo arima (beste iruzur bat, baina hainbeste dira) duten, gogoia bai, zalantzarik gabe. Baina badute oroimenik eta beldurrik eta galerarik eta milaka gauza humanorik, eta igandeetan hondartzara doaz. Eta badira hain gizaki ezen jainko direla. Jainko hilkorrak, jakina.

Horregatik, beharbada, jainko ere direlako, ez dago hemen nostalgia negartirik, ez neurriz kanpo behintzat, doi-doi beharrezkoa dena bizitzen duintasunez segitzeko. Nahiz eta sufrimendu guztiak age-rian egon aurrera egiteko kemena da nagusi, geroa beldurrik gabe ikustera beharturik gaude, eta beti:

*Bide berri bati ekin*

Azken buruan, mundua eta bizitza definitzen duen hitz zehatzena aldaketa da, etengabeko aldaketa.

Ez dezala kritikak esan liburu honetan eguneroko bizitza dagoela islaturik, mesedez. Hori da, hain zuzen, egunerokotasunarena diot, kritika batek aurkitu berri duen azken lelokeria. Telefonoak, autobideak, sukaldeak, hipermerkatuak, ospitaleak eta abarrekoak agertzen badira poema liburu batean berehala ekarriko dute hizpidera eguneroko bizitzarena. Zuhaitzek, hodeiek, itsasoek eta abarrekoak ez omen dute eskubiderik kategoria horretara sartzeko. Zerua egunero dugu buru gainean, baina, arestian esan bezala, inguratzen gaituen hitzen esanahien hondamendi honetan zeruak bere errealitatea galdu duela ematen du. Gutariko bakoitzari aita behin bakarrik hilko zaio, ez da hori egunero gertatzen den gauza bat. Ospitalera joatea bisitan eta kimioterapia saioetara ez da egunerokotasuna, hori bai, egunero daude ospitaleak jendez beterik, eta autobideak, eta hipermerkatuak, eta parkeak. Baina ez dira jende, bakoitza jainko bat da, heroi bat, sagarrak erosten edo medikua- ren atearen aurrean zain. Egunerokotasuna ez da

ezer, zerbait baldin bada bizitzak ezkututzen eta, aldi berean, erakusten duen beste gauza ezdeus bat, beste mirari ezdeus bat izango litzateke. Zuhaitzen koloreen mudantzari erreparatzea eta etxera iristean telefonoaren erantzungailua piztea, biak dira ekintza poetikoak, biak baitira bizitza ekintzak. Liburu hau bizirik dago, besterik ez.

RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA

*Hau esku bizi hau, gaur epel eta irrikaz  
estutzeko gauza dena, hotz balego eta  
hilobiaren izotzezko isiltasunean,  
hainbeste jarraituko lituzke zure egunak  
eta izoztuko zure gau amestuak,  
ezen desiratuko zenukeen zure bihotzeko odola  
lehortzea,  
nire zainetan bizitza ager dadin berriro  
eta lasaitu, horrela, zure gogoa. Begira, hemen da:  
zuregana luzatu dut.*

JOHN KEATS



---

## IBAIA

Garai batean ibaia zen hemen  
baldosak eta bankuak dauden tokian.  
Dozena bat ibai baino gehiago daude hiriaren  
azpian,  
zaharrenei kasu eginez gero.  
Orain langile auzo bateko plaza besterik ez da.  
Eta hiru makal dira ibaiak hor  
azpian jarraitzen duen seinale bakar.

Denok dugu barruan uhola dakarren ibai estali bat.  
Ez badira beldurrak, damuak dira.  
Ez badira zalantzak, ezinak.

Mendebal haizeak astintzen ditu makalak.  
Nekez egiten du oinez jendeak.  
Laugarren pisuan emakume nagusi bat  
leihotik arropak botatzen ari da:  
alkandora beltza bota du eta gona koadroduna  
eta zetazko zapi horia eta galtzerdiak  
eta herritik iritsi zen neguko egun hartan  
soinean zeramatzan txarolezko zapata zuribeltzak.

Hegabera izoztuak ematen zuten bere oinek  
elurretan.

Haurrak arropen atzetik joan dira arineketan.  
Ezkontzako soinekoa atera du azkenik,  
makal batean pausatu da baldar,  
txori pisuegi bat balitz bezala.

Zarata handi bat entzun da. Izutu egin dira  
oinezkoak.

Haizeak errotik atera du makaletako bat.  
Zuhaitzaren erroek emakume nagusi baten eskua  
dirudite,  
beste esku batek noiz laztanduko zain.

# BAT

*Zure gorputza ez da hitza:  
ez du gezurrik esaten,  
egiarik ere ez.*

MARGARET ATWOOD

---

# URRUN IZANIK

Urrun izanik  
begiraiezu  
trenbideetako mitxoleta gorriei,  
euren hostoak kulunkatzen.

Aineza pentsa:  
dena ez da galdu.  
Ainendi berriz zure ispilu,  
bidaztiarena aintzira den bezala.

Utzi pentsatzen  
berriz elkartuko garela,  
iraganeko egunak itzuli ahal direla.

Gezurra ez balitz esango nuke:  
ez naiz aldatu, ausart naiz oraindik.

Nire ametsetan hogeit hamar urte duzu beti.

---

# IRLA

*Horixe da zoriona,  
orduka lan egiten duen behargina.*

ANNE SEXTON

Igandea da hondartzan asmo oneko jendearentzat.  
Hango harrabots urruna entzuten da irlatik.

Uretara sartu gara biluzik,  
Anemonak, trikuak, barbarinak ikusi ditugu  
hondoan.

Begira, haizeak garia bezala mugitzen du urak  
hondarra.

Urpera sartu eta azpitik begiratu zaitut.  
Atsegin dut esku eta zangoen mugimendu geldoa,  
Atsegin sabelpeak itsasbelarren forma hartzean.

Lehorrera igo gara. Bero da eta itzal egiten dute  
pinuek.

Gaziak dira zure besoak, gazia bularra, sabela gazia.

Ilargia itsasoarekin lotzen duen indar berak  
lotu gaitu geu ere.

Mendeak segundo bihurtu dira eta segundoak  
mende.

Udare zurituak gure gorputzak.

Anemonak, trikuak, barbarinak ikusi ditugu  
hondoan.

Igandea da hondartzan asmo oneko jendearentzat.

---

# BISITA

**H**eroina larrua jotzea bezain gozoa zela esaten zuen garai batean.

Medikuek esaten dute okerrera ez duela egin, eguna joan eguna etorri, eta lasai hartzeko. Hilabetea da berriro esnatu ez dela azken ebakuntzaz geroztik.

Hala ere egunero egiten diogu bisita  
Arreta Intentsiboko Unitateko seigarren kutzara.  
Aurreko oheko gaixoa negar batean aurkitu dugu  
gaur,  
inor ez zaiola bisitara agertu diotso erizainari.

Hilabetea arrebaren hitzik entzun ez dugula.  
Ez dut lehen bezala bizitza osoa aurretik ikusten,  
esaten zigun,  
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,  
maitasun keinu bat besterik ez.

Amak eta biok soilik hitz egiten diogu.

Anaiak lehen ez zion gauza handirik esaten,  
orain ez da agertu ere egiten.

Aita atean geratzen da, isilik.

Ez dut gauzez lorik egiten, esaten zigun arrebak,  
beldur diot loak hartzeari, beldur amesgaiztoei.

Orratzek min egiten didate eta hotz naiz,  
hotza zabaltzen dit sueroak zainetan zehar.

Gorputz ustel honi ihes egingo banio.

Bitartean heldu eskutik, eskatzen zigun,  
ez dut promesarik nahi, ez dut damurik nahi,  
maitasun keinu bat besterik ez.



---

# SUPERMERKATUAN

**B**onbardaketak hasi direla jakin arren ez dut aparteko zalapartarik antzeman supermerkatuan. Jendeak ez ditu gurdietan esnea, patatak, arrautzak eta olioak pilatu. Ordaintzeko ilarara heldu orduko kutzazainaren berrikerari irribarre egin dio nire aurreko gizonak: «Egunon».

Bi magrebtar sartu direnean eurei begira geratu gara denok. Zalaparta bat-batean: poltsa apurtu zaio gizonari, eta firrilaka joan dira fruituak.

Madari mailatuen zauriak ezin dira itxi.

---

# MAHMUD

Aipa nezake lehenik ama, Assia arreba gaztea,  
eta Aita, besamotza eta edadetua, etxeko patioan.  
Aipa nitzake zerurik zabalenak, albaraka lurrina,  
laranja urez bustitako eskuak.

Aipa nezake Kotimo, lagunik minena,  
handia eta umoretsua.  
Nola ikusten genuen telebista elkarrekin,  
nola egiten genuen eskolatik ihesi  
Tangerko molletara joateko,  
nola imajinatzen genituen Londres,  
Amsterdam edo New York,  
portuko urazalaren gasolina orbanetan.

Bada behin eta berriz entzun dudan kontakizun bat.  
Aitak kontatzen zigun txikitan.  
Toledo izeneko hiri bat aipatzen zuen,  
bazela hiri hartan dorre bat,  
eta dorrean ate bat hogeita lau giltzarrapoz  
kondenatua.

Kontatzen ziguen errege bat hil bakoitzean  
beste giltzarrapo bat jartzen zuela errege berriak,  
aurrekoen ohiturari jarraituz.

Hogeita bosgarren erregeari jakinminak gehiago  
egin zion,

eta erreinuko jakintsuen esanei muzin eginez  
giltzarrapoak banan-banan kendu eta  
atea zabaltzeko agindu zuen.

Mundu guztiaren harridurarako,  
dorre barruan margo batzuk besterik ez zituzten  
aurkitu.

Horixe zen hango altxor guztia.

Margoek soldadu arabeak irudikatzen zituzten,  
zaldiak, gameluak.

Eta azken margoan gaztigu hau:

ate hau zabaltzean soldadu arabeek hartuko dute  
hiria.

Ilundu orduko sartu zen Tariq b. Ziyad Toledoko  
hirian,

eta berehala hil zuen bertako erregea,  
jakinminak gehiago egin zion errege hura.

Aitaren kontakizuna nuen gogoan  
Tangertik Cadizerako bidean.  
Europako gerra batean galdu zuen besoa aitak.  
Esaten zuen ez zegoela ezer itsasoaz bestalde,  
kentzeko asmo horiek burutik, zahar sentitzen zela,  
laguntza behar zutela etxea gobernatzeko.

Aipa nezake gauez atera ginela Tangertik,  
hogeita lau ordu luze behar izan genituela  
Cadizera heltzeko.

Aipa nezake ehun eta berrogeita hamar mila  
kobratu zigula patroiak bidaiaren truke.  
Eta berrogei gehiago, poliziak ikusi gabe  
hondartzatik aterako gintuela agindu zigun alproja  
hark,  
dirua hartu baina gure bila agertu ez zen berak.  
Gero etorri ziren Madril, Bartzelona, Bordele, Bilbo.  
Eraikinak, denda handiak, galsoro lehorrak.  
Baita gaua eta alkohola ere  
eta pikuak bezala urtzen ziren gorputz lirainak.

Bada behin eta berriz burura datorkidan amesgaizto  
bat,  
amesgaiztorik latzena.

Benetan jazoriko horiek baitira latzenak.

Ezin ahantz dezaket Kotimo, liskar batean hila  
hondartzako alproja harekin topo egin ondoren.

Zorigaitzaren kontuak.

Ezin ahantz, berrogei mila horiengatik  
egin zutela bat komun hartan odolak eta elurrak.

Patioan utzi ditut lagunak. Galerietarantz egin dut.

Urrun da albaraka lurrina,  
urrun laranja-urez bustiriko eskuak.

Burdinazko atea zeharkatzen ari da  
labanderiako gurditxo.

Begira egoten naiz horrelakoetan.

Barrote artetik kaleko atea ere ikusten dut suerterik  
bada.

Ongi zenbatuak ditut hemendik kalera dauden  
ateak.

Hogeita lau giltzarrapo besterik ez dira.

---

# VOLGA

Apirila. Urtu da Volga ibaiko izotza.  
Hasi dira nabigatzen baporeak  
hilabete lehenago gurdiak igaro ziren leku beretik.  
Anton Txekhov Sajalin-era abiatu da. Irla kartzelara.  
Ezetz esan dio amak, ezetz esan dio anaiak.  
Argi dauka ordea berak:  
Izena jarri nahi dio infernuari.

Abendua. Txekhov iritsi da Moskura.  
Ama eta anaia joan zaizkio bila.  
Fardelak dakartza paperez beteta.  
Baina bere begiak nekatuegi daude,  
lauso urdin batez estaliak,  
egunen joanari ezin eutsi dion  
izotz kapa leun batez beiratuak.

---

# SAGUZARRA

Saguzar bat dut sabelean.

Zure osin lohitik jaio da, salamandrak bezala.

Nire barruko horma arrosotan egiten du lo,  
eta lodituz doala nabari dut egunez egun.

Esnatu egiten da gauez

pentsamenduak iluntzen zaizkidanean.

Eta bira eta bira egiten du hegaz, txilioka.

Mugi ditzaket besoak,

mugi ditzaket zangoak,

baina ez naiz sabeleko giharren jabe.

Saguzarra kanporatzeko nire garuna ez da nor.

Gela zuri batera eramanda

xurgagailu bat sartu didate barrenak husteko.

Orain brontzezko irudi bat naiz parkean,

huts-hutsik eta geldirik.

Lasaiago nago

negar egiteko.

---

# KARDIOGRAMA

- **D**eskriba iezadazu bere bihotza.
- Laku izoztu bat ematen du,  
eta haur itoen aurpegiak  
ezabatzen ari dira bertan.



# BI

*Ipuinik ederrenak txikitakoak dira.  
Nire gustukoena hauxe da: Behin,  
hezurrezko botoi bat irentsi nuen.  
Egun hartan negar egin zuen amak.*

ZBIGNIEW HERBERT

---

# GERRAOSTEA

**A**ntzarak igaro dira urrian magal bipiletatik.  
Haurrak konturatu eta korrika doaz atzetik.  
«Ezkontza, ezkontza» egiten dute oihu.  
«Puntako biak ezkongaiak dira»  
esan dio neskatiletako batek ahizpa gazteari,  
«eta hegaletakoak gonbidatuak».

Antzarak igaro dira urrian magal bipiletatik.  
Korrika doaz haurrak atzetik.  
Adokin bustietan beren oin biluziek  
negu gorria aurreratzen dute.  
«Ezkontza, ezkontza».

---

# EGUN HURA

Esango didazu ez dela egia baina batzuetan ematen  
du  
mundua geratu egiten dela. Bira egiteari utzi eta,  
gurekiko behingoz abegitsu eta gaztigu eginez  
bezala,  
une hori luzatzen digu betiko.

Esango didazu gehiegikeria dela nirea,  
eta esaten ditudanak ez direla hain muntako,  
hain berebiziko, beste gertaera batzuen aldean.

Baina uztaileko arratsalde hartan,  
oraindik gazte, oraindik herabe,  
etxeakoak zelai hartan futbolean ikustean,  
neska koskor ala nagusi izan,  
orduan konturatu nintzen,  
gutxi barru gutariko batzuk,  
eta baita lekua bera ere,  
desagertu egingo zirela.

Ez zen egun hartan ezer berezirik gertatu  
baina une hura,  
esnezko erle eta argizarizko zelaien eguna,  
bakarra izango da beti niretzat.

---

# URRIKO POEMA

Iritsi dira notiziak  
iritsi dira eskutitzak  
baina ez zureak.

Igaro ziren hegazkinak,  
erre zituzten zubi denak,  
isildu bazterrak.

Galdetu diet hegaberei,  
galdetu pago biluziei,  
ez dakite ezer.

---

# ARRISKUA

Arriskua zenuen maite.

Zenbaiten ustean haurtzaro latzak

betiko markatu zizkizun esku ahurretako erreka  
lehorrak,

eta horregatik mugak hauste hori,

bazterrera, zulora hurbiltzeko joera.

Irlandatik, Danimarkatik zetozen kamioiak arraina  
biltzera.

Atzeko kolpe-leungailura abantean igo eta

abiada hartzen zutenean jauzi egitea zenuen  
gogoko,

hirulau urrats egin eta lurrera erortzeko.

Bonba zaharrak hartzen zenituen eskuan,

gerra zaharreko frontean erdietsiak,

sasi artean lubakiak antzematen ziren,

ezin sendatuzko zauri sakonegiak bezala.

Arriskua zenuen maite,

eta konturatu naiz ezer ez garela arriskurik gabe,

atea zeharkatzerik ez, itsasoratzerik ez, maitalerik ez.

Denbora igaro da urte haietatik eta, gaur, zure akabera aurreratzen zutenen begiak neguak hildako kardantxiloenak dira.

---

# LOREN

Lehorreratu dira ontziak,  
korrikan doaz umeak.  
Lorenek gorriz du ilea,  
oinetan takoiak.

Cocacolakin whiskya eta  
elur malutak patrikan.  
Hari segiko dionik ez da  
jaio mundu zabalean.

Nola egin duzu, esan diote,  
soineko hori josteko?  
Oihal beltzean klarion zuriz  
izarrak marraztu ditut.

Min egiten du ipar haizeak  
ene aurpegian.  
Min egiten du  
sortu ez den mundu berriak.



---

# GEREZIONDOA

Hil egin da etxeko gereziondoa,  
lorea zegoela leihotik begiratzen genuen hura,  
gogoan al duzu?  
Hain xinglea itsaso handiaren ondoan.

Gereziondoa zuhaitz minbera da.  
Hala esan zuen osabak, badakizu,  
ernanien habiak non zeuden esaten zigun hark.  
Gereziondoak ez du gehienetan  
hogeita bost baino askoz urte gehiago betetzen.

Etxeko zakurra ere hil egin da.  
Tira, al baitariak hil zuen txerto batekin.  
Zoratu egin zen goizetik gauera zakurra.  
Hasieran, ez zuen etxolatik irten nahi.  
Gero ardiak akatzen hasi zen eta etxekoei hozka  
egiten.

Zu hil eta egun gutxira hil ziren.

---

# TEKNOLOGIA

Aitonak ez zekien irakurtzen,  
ez zekien idazten. Hala ere kontalari

ezaguna zen herrian. Berak pizten zituen,  
hurrez inguraturik, sanjuan suak.

Aitaren kaligrafia etzana zen, jantzia.  
Doiki ehuntzen zuen papera,

arbela zizelatuko balu bezala.  
Mahaian dut soldaduskatik igorritako postala:

«Yo bien, tú bien,  
mándame cien».

Gure sasoian mezu elektronikoak  
bidaltzen dizkiogu elkarri.

Hiru belaunalditan, egia da,  
idazketaren historia luzea igaro dugu.

Dena den, kezkak, beldurrak  
beti-betikoak dira, eta izango:

«Yo bien, tú bien...».

---

# JOHN KEATS-EN HILARTITZAZ

Idatzi neure izena ere urarekin  
euriak zehazten ditu-eta  
gurean gizakion siluetak.

# HIRU

*Lotara joan behar dugu maitea, amaitu da jolasa.  
Hanka puntetan. Kamisoi zuriak hanpatu dira.  
Gurasoek esango dute ingumak ibili direla gauez  
gure hatsak trukutzen ditugunean.*

INGEBORG BACHMANN

---

# ZUHAITZEN DENBORA

Zugan da zuhaitzen denbora  
elkar maitatu ondoren.

Ohean lo, betazalek  
soilik estaltzen zaituzte.

Ez jarraitu beldurrari,  
ez esan beti, ez esan inoiz ez,  
utzi libre denborari  
bidea egiten.

Zugan da zuhaitzen denbora  
elkar maitatu ondoren.

Plazer-urak biltzen zaitu  
malkoak begia legez.

Ez jarraitu beldurrari,  
ez esan beti, ez esan inoiz ez,  
utzi libre denborari  
bidea egiten.

Zugan da zuhaitzen denbora  
elkar maitatu ondoren.

---

# MUSUA

Nire titiak txikiak dira eta begiak biribilak.  
Zure zangoak, luzeak eta freskoak  
iturritik behera datorren zurrusta bezala.  
Hozka egin dizut zaman,  
sendoa duzu, heldu gabea oraindik,  
intxaur erori berrien antzeko.  
Nire gainera igo zara eta musuka hasi sabelean,  
uhin umelak barreiatu dizkidazu azalean,  
orain hemen, gero han,  
ekaitza hasi baino lehen erortzen diren  
lehen tanta lodiak bezala, pla, pla, pla.

Lo geratu gara bizkar eta bular,  
biltzen diren moduan ezpainak  
hasperenaren ostean.



---

# ARIMA GAIZTOAK

Amaren amona hartu dut gogoan.  
Bazuen arima errarien berri.  
Bazekien, goizean suaren hausterreei erreparatuz  
gero  
gauetz arima gaiztoak ala parte onekoak ibili ziren.

Behin, baltseotik bueltan,  
etxetik kanpo aurkitu zuten amak eta ahizpek.  
Etxera ez sartzeko agindu zien,  
kamisoia soinean eta argizaria eskuan,  
han barruan arima gaiztoren bat zebilelako.

Oheko maindireei erreparatu diet goizean.  
Zure usaina darie eta zure zainetako ur arrastoak  
dituzte.

Zure arimaren aztarnak.

Gaiztoa ala parte onekoa zen ez dakit.  
Horregatik, erritu zaharrak artoski errepikatuz,  
bart entzun genuen musika jarri dut berriro,  
eta ohera sartu ezari-ezarian.

Maindireak estutu ditut nire kontra,  
azala laztandu,  
eta gogora ekarri ostera ere, bata bestearen atzetik,  
bart gaueko mugimendu oro.

Izan dut zure arimaren berri.  
Zalantzarik gabe, gaizto horietakoa da.

---

# EZKUTUKO MAITEA

Neuk ere izan nuen ezkutuko maite bat  
zazpi edo zortzi urte nituela.

Berak ez zekien ezer.

Ez nion inoiz ezer esan.

Iribarre bat zen harekin zubi bakarra.

Duela gutxi amets egin nuen berarekin.

Girnaldak, zaldi urdinen urrezko iduneria.

Bazterrera eraman eta itaundu zidan:

«Ondo ibili haiz munduan barrena?

Zortetik izan duk?».

Ezetz esan niola uste dut.

Eta abismora erori baino lehen esan zidan:

«Beti jakin dut maite nauzula».

Ez dakit atzera itzultzea zilegi zaigun,

albo batera lagatako bidegurutzeak

berriz aukeratzeko modurik badugun.

Baina egia da lantzean behin

iraganean sentitutakoa egiazko bilakatzen dela,

amiñi batean bada ere.

Ametsetik astebetara  
elkarrekin topo egin genuen kalean.  
Girnaldak, zaldi urdinen urrezko iduneria.  
Ez zuen elkarrizketak  
ametsaren antzik izan.

Hainbat urte lehenago bezala,  
irribarre bat gorabehera,  
ez nion ezer esan.

---

# LEHENAGO BEZALA

**B**atzuetan iragana  
oraina bihurtzen da.  
Ezer gertatu ez balitz bezala  
Deitu ahal banu zeurera.

Itzul gaitezke atzean  
utzitako bideetara?  
Jakin daiteke  
behera eta behera goazela  
hondoa jo arte?

Non zaude maitea?  
Non dago argia?  
Lehenago bezala  
kanta belarrira.

Gogoan hartu ume haiek  
bainatzen zubipean.  
Gogoan hartu esan nizkizun berbak  
egiazkoak zirela.

Zenbat aldiz alda gaitezke?

Zenbat aldiz hobera?

Ba al dakizu zer izan zen benetan  
urrundu gintuena?

---

# SAGARRAK

Homerok hitz bakarra zerabilen  
gorputza eta azala izendatzeko.  
Safok lagunak bularretan hartzen zuen lo.  
Etxeparek emazte biluzgorriekin egiten zuen amets.

Aspaldi isildu ziren denak.

Gaur badirudi perfektuak izan behar dugula ohean  
ere,  
supermerkatuko sagar gorri horiek bezala,  
perfektuegiak.  
Larregi eskatzen diogu geure buruari  
eta norberaz, ondokoaz  
espero duguna ez da ia sekula gertatzen.  
Legeak bestelakoak dira gorputzak korapilatzean.

Homerok hitz bakarra zerabilen  
gorputza eta azala izendatzeko.  
Safok lagunak bularretan hartzen zuen lo.  
Etxeparek emazte biluzgorriekin egiten zuen amets.

Gogoan dut oraindik  
elkarri besarkatuta lo egiten genuen garaia,  
tigrekume ikaratiak gu, gaubeilan.



---

# HAIKU

Hiru gorputz biluzik ohean.  
Gau epela egin du baina  
ihintza dute azalean.

# LAU

*Non bildu  
pertsone beraren  
milaka zatiak*

YORGOS SEFERIS

---

# BIDAZTIA SORTERRIAZ MINTZO DA

*Betiko aberri galduaren  
oroimen urruna. Ez dakigu  
noiz galdu genuen: atzo ala bihar.*

SOPHIA DE MELLO

**G**ure desertuan ez da harearik.  
Metalezko hesia zeharkatu eta  
autopistan futboleant jolasten duten  
mutil koxkorrak badira.

Gure itsasoan ez da urik.  
Mila zaldi urdin ziren uhinak.  
Mila soldadurekin batera  
eraman zituzten behin.

Gure desertuan ez da harearik.  
Baina bada harresi erraldoia,  
ezin ikusi dugun arren, hurretik,  
oso hurretik inguratu gaituena.

Gure itsasoan ez da urik,  
ez eta iraganaren uberarik.  
Etorkizunak hondartzan dautza  
malkoz eta ispilu hautsiez izorra.

Gure desertuan ez da urik.  
Gure itsasoan ez da harearik.

---

# AMESGAIZTOA

Haurrekin amets egin dut gaur ere,  
gerrako haurrekin.

Automobil batean zihoazen  
muga zeharkatzeko asmoz, nagusirik gabe,  
bakarrik, gidatzen ere doi-doi zekitela.  
Gurasoek, etsiturik,  
nahiago zuten haurrak auto-istripuz hiltzea  
egunero bonbek urratzen duten hirian baino.  
Ihesi zihoazen, halabeharrak utzitako  
azken aukera profitatu nahian.

Esnatzeko eginahalak egin, baina  
behin eta berriz hondoratzen nintzen  
amesgaizto hartan.  
Beti amets bera.

Haurrekin egin dut amets. Gerrako haurrekin.  
Neu ere haurra nintzen. Eta ihes egiten genuen,  
mugarantz, kantari:  
«Nora goaz? Ez dakit!  
Nora goaz? Gu pozik!».

---

# SOLDADU MONGOLIARRAK

**B**igarren Mundu Gerra bukatzean. Italia.  
Soldadu mongoliarrak  
bi aldeetan borrokatu ziren;  
sobietarrekin hasi, gero alemaniarrek preso hartu  
eta hauen armadan sartzerara behartu zituzten.  
Orain alemaniarrek atzera egitean  
abandonatu egin dituzte mongoliarrak.  
Etsiak hartuta, kamioi baten jabe egin dira.  
Biharamuneko ihesari adorez ekin baino lehen  
erabaki dute apirileko gau epela profitatzea.

Ez da erraza izango sorterrira itzultzea  
kontinentean barrena. Ezinezkoa ia.  
Jopu dira galtzaileentzat,  
traidore irabazleentzat.  
Ebatsitako likore botiletatik dzanga eginez  
kantuan aritu dira osoan.

Goizalban kamioia abantean jarri,  
atzealdera igo eta  
Po ibaira amilarazi dute.

Han ito dira denak.

---

# BIDAIA KAIERA: BHUTAN

Ahiturik iritsi dira turistak bordara.  
Malkartsua izan da mendi arteko bide luzea.  
Afari beroa paratu die etxeko nagusiak.  
Leihoan ilargi betea, Himalaiako gailur zuriak.

Turistetako batek besteari:  
«Oraindik ez dute jakingo menturaz  
gizakia ilargian egon denik ere».  
Etxeko nagusiari kontatu dio konkista.

Pentsakor jarri da bhutandarra. Ez du, ordea,  
harridura eta miresmen keinurik adierazi.

Apal ihardetsi die begibitartea zimurtuz:  
«Eta zenbat sherpa behar izan zituzten  
ura hara goraino eramateko?».



---

# BIDAIA KAIERA: ASILAH

Asilah-ko talapean itsasoa.

Harkaitzetan oinotsak.

Itzal artegak harat-honat.

Hainbat gizon-emakume fardelak aldean.

Lipar batean desagertu egin dira,

sugandila ikaratiak balira bezala, ihesi.

Saidek hautsi du isiltasuna:

«Hegoaldeko nekazariak dira.

Europara iritsi direla uste dute.

Horregatik dabilta horren isilean.

Tarifa edo Kanariar irletako kostatik

hurbil daudela esaten diete bateletako lemazainek,  
itsasoan bira eta bira ibili ondoren.

Lehorrekoak izaki ez dira konturatzen

Marokoko uretatik atera ere ez direla egin,

ez dakite abiatu diren lur berberera iritsi direla,  
atzera».

---

# GATIBUAREN BALADA

**B**adira zazpi ate  
sarrailarik gabe  
Duela zortzi mende  
igaro nituen

Ezagutu nuen infernua  
elurtez elurte  
Ezagutu nuen infernua  
nire aurrean zabaltzen

Hitzak ahoan hausten zaizkit  
harri koskorrak legez  
Hitzak eskuetan hausten zaizkit  
onik atera nintzen

Ezagutu nuen infernua  
komisaldegietan  
Ezagutu nuen infernua  
zigor zeldetan

Ni nintzena ikusi dut  
patioan paseatzen  
Ni izandako gazte haren  
begiak lausotzen

Ezagutu dut infernua  
nire aurrean zabaltzen  
Ezagutu dut infernua  
onik atera nintzen

Zazpi atek berriz igarotzean  
nagusitu zait zalantza  
Zazpi atek berriz igarotzean  
hustu egin zait gorputza

Ezagutu dut infernua  
begi aurrean zabaltzen  
Ezagutu dut infernua  
onik atera nintzen

---

# MEMORIA HISTORIKOA

Londres. Brixton auzoa. Eskuot batean hiru japoniar.

Afaria egin dugu. Bihar hegaldia daukat Bilbora.

Te beroaz Bigarren Mundu Gerra hizpide.

Japoniako zaharrek horri buruz ez dute ezer esaten,

kontatu du batek. Are gehiago, eskola-liburuetan

ez da gerrari buruz ia aipamenik agertzen.

Gutxi gorabehera, esaldi bakar hau:

«Bigarren Mundu Gerra

1942-1945 urteetan gertatu zen eta

Hiroshima eta Nagasakiko bonbekin amaitu».

Hegaldian noa Bilbora.

Txiki-txikiak dira hemendik Bizkaiko etxeak.

---

# ABIOIAK ZERUA URRATZEN

Isiltasuna eta ihintza dakarte haren begiek.  
Ikusi ditu gorpuak erretenetan,  
abioiak zerua urratzen,  
bakardade zilborrak ereiten  
sororik soro, herririk herri.

Ez du nora itzuli, norantz bideratu urratsa,  
urtegi batek estali ditu haren oroitzapenak.  
Ez dakar konturik,  
nozitu egin ditu egiak, ez dute izenik.  
Goxo har dezaten nahi du soilik,  
beti arrotz izan, herririk herri.

Ez du nora itzuli, norantz bideratu urratsa,  
urtegi batek estali ditu haren oroitzapenak.  
Urrunera begira dabil, herririk herri.

---

# HODEIAK

Ihesi doaz hodeiak. Neguko  
eguzkiaren usaina maindireek.  
Goiz da oraindik.

# **BOST**

*Hitz lehorrak eta zaldunik gabeak,  
zaldi aztalen zarata nekaezina.*

SILVIA PLATH

---

# EZIN ESAN

Ezin da esan Libertatea, ezin da esan  
Berdintasuna,  
ezin da esan Anaitasuna, ezin esan.  
Ez zuhaitz ez erreka ez bihotz.  
Ahaztu egin da antzinako legea.

Uholak eraman du hitzen eta gauzen arteko zubia.  
Ezin zaio esan tiranoak erabaki irizten dionari  
heriotza.

Ezin da esan norbait falta dugunean,  
oroitzapen txikienak odolusten gaituenean.

Inperfektua da hizkuntza, higitu egin dira zeinuak  
errotarri zaharrak bezala, ibiliaren ibiliz.  
Horregatik,

ezin da esan Maitasuna, ezin da esan Edertasuna,  
ezin da esan Elkartasuna, ezin esan.  
Ez zuhaitz ez erreka ez bihotz.  
Ahaztu egin da antzinako legea.



Alabaina «ene maitea» zure ahotik entzutean  
aitor dut zirrara eragiten didala,  
dela egia, dela gezurra.

---

# BADA BELDUR BAT

Bada beldur bat abisurik gabe eta erabat hartzen gaituena.

Otsaileko albatrosak itsaslabarretan bezala

gure gogoan pausatzen da,  
dena ospel, dena uzkur, dena ahul bilakatuz.

Berehala etxera deitzera behartzen gaitu,  
ahots ezaguna entzun eta lasaitzeko.

Eta, tamalez, aldika beldur hori  
gaizto izaten da eta zehatz,

eta haize berdeak ekaitza halatsu  
iragarri egiten du dohakabea.

Berri txarra aditu bezain laster hurbildu ginen  
ospitalera.

Osabak besoarekin inguratu eta alboratu egin  
ninduen.

Belarrira egiten zidan hitz eta nik bere eskua  
ikusten nuen soilik.

Txalupan mozoloak harrapatzeko gauza zen esku  
kakotu hura.

«Bizitzan gauza batzuk onartu egin behar dira.  
Honek ez du batere itxura onik. Ausart izan behar  
duzu».

Inoiz ez naiz hain bakarrik sentitu.

---

# ARROTZA

**E**z dakit noiztik izan zen, ezin dizut esan.  
Duela hilabete bat jabetu nintzen eta  
gauero gertatu zen geroztik.

Kontu handiz egiten nituen egiteko denak,  
autoa ohiko toki seguruan utzi,  
ateak ondo itxita zeudela ziurtatu. Baina alferrik.

Biharamunean zabalik aurkituko nuen.  
Hasieran autoa beste auzo batzuetan  
uztea deliberatu nuen. Alferrik.

Zabalik aurkitzen nuen. Agi denean,  
norbaitek lo egiten zuen barruan.  
Eta haren usainarekin joaten nintzen lanera.

Gero pentsatu nuen, lo besterik egiten ez bazuen  
ez zela hainbesterako. Azken batean,  
ez zuen autoa lapurtzen. Areago,

atsegin zitzaidan urruneko lurrin hura.

Nongoa ote zen galdetzen nion neure buruari,  
nolakoa, beltza ala ezti kolorekoa.

Lore bat utzi nion behin. Hartu egin zuen.

Hurrengo egunean, mezu bat utzi nion.

Alferrik. Ez da geroztik agertu.

---

# AUTO ISTRIPUA

**A**utopistako bi norabideen artean belardi estua.  
Belardian behi andana.

Hesia eta bidea zeharkatu eta belardian babestu  
dira.

Ez atzera ez aurrera, aztoraturik mugitzen dituzte  
buruak.

Gaua da beren begietako hemisferioetan.

---

# AUTOBUSEAN

Mugarantz naraman autobusean entzun dut atzeko bikotearen solasa:

- Maite zaitut —dio mutilak.
- Zergatik? —neskak.
- Ez dakit... polita zarelako, agian.
- Horregatik bakarrik maite nauzu?
- Ez, beste zerbaitegatik ere izango da.
- Zergatik orduan?
- Ez dakit. Orain ez zait ezer bururatzen.
- Beraz, ez nauzu maite.
- Ba ez, ez zaitut maite —dio mutilak.
- Zergatik? —neskak.

Veronan Trentora lanera doazen puta nigeriar lirainak igo dira; kantari egin dute ordubeteko bidea. Adornoren liburua hartu dut berriro: «Alemanez, boterea eta indarkeria hitz bera dira».

Munichera narama autobusak.

---

# GADDA

Arauzko nobelarik behinena egitea zuen helburu  
Carlo Emilio Gadda idazleak.

Ez zuen inoiz proiektua bukatzerik erdiesten.

Luzaroan izaten zen gogoeta egiten  
eta esaldiak moldatzen

balizko nobela bukatu nahian.

Baina ez zuen inoiz lortzen.

Asmo horri amore ematen zionean bakarrik  
argitaratzen zituen liburuak.

Bukatu gabeko kontakizunak ziren,  
halabeharrez.

Izan ere, zatietan datza  
errealitatearen muina.



---

# HALINA

Aurpegi alaia zuen Mirenek, atsegina berbaldia,  
zauriak sendatu uste dituenarena,  
zerotik hasi berriarena.

Ez nuen aspaldian ikusi.

Gure etxe barrukoa zen eta haurtzaroan  
bi familiok gertatu izan ginen igandeetan.

Miren urteak helduagoa zen ni baino.

Gazte ezkondu zela banekien,  
eta banuen bere banaketaren berri.

Harritu ninduen berarekin hard-core  
kontzertu batean topo egiteak.

Ondoan zuen lagun bat, eszenatokira begira.

Lantzean behin kirika egiten zion  
eskuartearen nahasten ari zen kostoari.

«Tadek izena du, poloniarra da.

Kartzelatik atera berritan ezagutu nuen  
pasa den asteen. Elkarrekin bizi gara etxean.

Larrua jotzen dugu etengabe, eta erre eta erre.

Ez diot ezer ulertzen. Polonieraz eta  
errusieraz mintzo da soilik. Egia esan,

hitz bakarra ateratzen da bere ahotik,  
emakume baten izena: Halina.

Ez du beste berbarik».

Tadekek eten egin zuen gure jarduna.

«Halina» hots egin zion

kanutoa egina zela gaztigatzeko:

«Halina, Halina».

---

# PEDRO

Gaueko hamaikak.

Zaindareiek azken zenbaketa egin dute.

Beheko kamainan Pedro.

Telebista piztu du. Lehiaketa bat.

Goizeko bostak.

Itzartu egin nau telebista hotsak.

Ilun da barroteez bestalde.

Telebistan emakume bat

alferrikako gauzak saltzen.

Pedrok esna jarraitzen du

ohe gainean etzanda eta jantzita.

Telebistari begiratzen dio ikusi gabe.

Bi ordu barru aterako da aske.

---

# ZUBIAN

*Haren garuna mandioa zen.*

RAYMOND CARVER

Lanetik etxera zubian gelditu naiz  
azpitik pasatzen den autobideari beha.

Zerua hodeitsua, leuna haizea,  
leunak dira euriaren eskuak.

Nahasi dut burua, urteen ganbara,  
haserreena, betiko kezka horiena:

kaosari itxura ematen ahalegindu,  
gizakia ekarri munduaren neurrira.

---

# IGOGAILUA

Arreba eta biok  
ospitalera itzuli gara hilabete geroago.  
Eraikinean sartu ahala  
urduri begiratu dugu hara eta hona,  
haurrek plastikozko poltsetan eramaten dituzten  
arrain gorriek bezala.  
Ezkerrean, ebakuntzaren zain izan ginen gela.  
Bertan igaro genuen azken gaua  
umea espero zuen familiarekin batera.  
Korridorearen bukaeran, igogailua.  
Bi hilabetez eta egunean bitan  
igotzen ginen bosgarren pisura,  
zainketa berezien gelara,  
egunero zer aurkituko,  
berri onik noiz entzungo.

Azken txostenak sinatu ostean  
irtetear gaudelarik,  
igogailura begiratu eta esan diot arrebari:  
«Igoko al gara gora?  
Aagian oraindik hantxe dago gure zain, ohean».

Begirakunea egin dit arrebak.  
Urtsuak ditu begiak, txikiak  
mendiko marrubien pareko.

---

# HARRA

Denok behar dugu beste zerbait barruko harra asetzeko.

Denok dugu hitz bat gutxiago besteri esateko.

# SEI

*San Simon eta San Juda  
joan zen uda  
eta negua heldu da.*

GABRIEL ARESTI



---

# ARESTI-DUCHAMP XAKE PARTIDA

ARESTI:

Hire txanda, Marcel.

DUCHAMP:

Ez zagok presarik.

Xakea marraztea bezala duk.

Buruan marrazten dituk mugimenduak  
eta gero taulan.

Onena duk xake-aula ez dela koadro bat,  
behin bukatu eta hilik geratzen dena.

Bizia duk, Calder bat bezalako.

Ez zagok presarik. Mugimendu on batek,  
lan on batek bezala,  
bere denbora eskatzen dik.

ARESTI:

Halako zerbait gertatu zitzaitoan  
margolari txinatar hari ere.

Enperadoreak karramarro baten marrazkia  
eskatu

ziolarik, margolariak jauregia eta  
hamabi zerbitzari galdegin zizkioan trukean.  
Eta bost urteko epea.

Bost urte igarota artean hasi gabe zegoelako  
beste bost urteko epea eskatu zioan  
enperadoreari. Hark eman.

Azkenik, pintzela hartu eta instant batean  
marraztu zian karramarroa,  
denik eta karramarrorik perfektuena.

*(Duchampek zupada eman dio puruari eta dorrea jan)*

DUCHAMP:

Dena den, aukera guztiak zitian  
besoa moztu edo urkamendian bukatzeko.  
Lana ez bukatzea zen litekeena.

Atera kontuak, neuk ere hamar urte  
igarotutik «Beira handia» egiten.

Aspaldi utzi nioan pintatzeari,  
hogeita bost urte besterik ez nituela.

Ezertxo ere egiten ez nuela uste zitean.

Neurri batean egia zuan, bizitza bilakatu zuan  
garai batean nire artelanik behinena.

Baina tarteka ekiten nioan proiektu eskerga  
horri.

Zorigaitzaren kontuak, azkenik  
bukatu gabe zegoela saldu nian,  
diru gabe eta gogaiturik.

ARESTI:

Zakurrek egiten ditek dantza diruagatik.

DUCHAMP:

Gasturik ezean ez duk dirurik behar.  
Zenbat eta gauza gehiago nahi  
orduan eta zor handiagoa.  
Ezer gutxi izatea duk onena.

*(Arestik bi pieza jan dizkio mugimendu bakar batean)*

ARESTI:

Ezer gabe geratuko haiz  
horrela jokatzen baduk.  
Ez duk batere defentsa onik.

DUCHAMP:

Soldaduska ez egitearren izango duk.

ARESTI:

Nik neuk ere ez nian luzaroan egin.  
Soldaduei idazten eta nagusiei

ingeleza irakasten nieran.  
Etxetik arra bete bidera.

DUCHAMP:

Abokatuak eta medikuak  
hobe moldatzen zituan gurean.  
Eta baita arte langileak ere.  
Grabatuak egiten zitian aitonak.  
Neu ere grabatugilea nintzela  
agindu nieran erroldakoei.  
Jakina, ez nian ideiarik.  
Hala ere, ganbara miatu,  
aitonaren xafla zaharrak hartu  
eta horrelaxe agertu ninduan tribunalera.  
Oso-osorik sinetsi zitean.

ARESTI:

Gaztetan ere plazagizon.

DUCHAMP:

Ez zagok arterik entzulerik gabe.  
Picasso eta Metzinger zatozkidak burura.  
Kubismoa famako egin aurretik  
Metzinger zegoan ahominean.

Azaldu egiten zian hark kubismoa.  
Gero konturatu gintuan ez zela azalpenik behar.  
Picasso agertu eta bandera bilakatu zuan  
berekala.  
Jendeak ez zian besterik nahi.  
Metzinger gaixoa ahaztu egin zitean.

ARESTI:

Poesiak ere ez dik esplikaziorik behar.  
Lizardi konprenitu egiten duk,  
heldu egiten duk.  
Isiltasunak inguratzen dik hitza.  
Isiltasun horretan zabaldu behar dituk leihoak.  
Pentsa, Amazoniako indiarrek  
zuloak zabaltzen ditiztek oihanean.  
Lurra landatu eta urte beteren buruan  
berriz luzatzen dituk zuhaitzak.  
Oihanean zuloak egin behar ditiztek hitzek.  
Soilik behar beharrezkoak diren zuloak,  
oihan guztia biluztu gabe.  
Baina arrazoi duk,  
idazle batentzat inportanteena  
irakurria izatea duk.

*(Duchampek pieza mugitu du pentsakor)*

DUCHAMP:

Zer botatzen duk gehien faltan?

ARESTI:

Etxekoak, lagunak, oinak lurrean izatea.  
Beti flotean ibili behar honek  
nekatzen naik. Nork esango  
hilondoan flotatzen egongo ginela denok  
hodeiak bezala, lantzean-lantzean  
norbaitekin elkartzuz, dela erromatarra,  
dela bikingoen garaikoa,  
dela Etxeberri Sarakoa.  
Onena elkarrizketak dituk,  
hainbeste jenderekin gertatzea.

DUCHAMP:

Nik ez nian honelakorik espero.  
Infernuko ideiak ere tentatu egiten nindian.  
Halako errepublika libre bat izateak,  
inolako araurik gabea.  
Nik uste Cravanek ere  
halako zerbait espero zuela  
Mexikon desagertu zelarik.  
Lagun guztiei deitu, portuan agurtu  
eta txalupa batean alde egin zian bakarrik,

ur handietara.

Oraindik ez diat harekin topo egin.

ARESTI:

Bilbon izan nahiko nikek nik,  
berriro erriotan bainatu  
eta Abadiñoko harriak ikusi,  
dozena bat antigoaleko harri  
biribilean jarririk, batzarrak egiteko.

DUCHAMP:

Ez zituan ba margolariak batzeko izango?

ARESTI:

Ez, gizona.

DUCHAMP:

Idazleak?

ARESTI:

Ezta ere. Baina gogoan diat  
behin batean bi idazlek  
nortasun txartelak trukatu zituztela  
literatur kongresu batean:

Oihenartek Miranderen argazkia paparrean  
eta Mirandek Oihenartena.

Barregarria izan zuan.

*(Arestik patrikatik errekarri txiki bat atera du)*

ARESTI:

Harriak botatzen ditiat faltan.

DUCHAMP:

Hik harriak eta nik beira.

Ez diagu bikote txarra egiten.

Beirak ezkutukoa uzten dik agerian,

beirazkoak dituk leihoak,

beirazkoak godaletak,

beirazkoak hareazko erlojuak.

*(Harrizko dorrea mugitzeko keinua egin du Arestik)*

ARESTI:

Ez zaiguk jokatzeko pieza asko geratzen...

DUCHAMP:

Nik ez diat gogoko partidak bukatzea.

Badakik liburu bat idatzi nuela



oso gutxitan gertatzen den  
xake mugimendu bati buruz.  
Mugimendu horretan  
ezin zioke batek besteari irabazi.  
Oso gutxitan gertatzen duk;  
gu biok elkar topatzeko bezain  
aukera gutxi zaudek,  
planeta guztiak lerroan jartzea bezain.  
Onena beste kasualitate baterako  
ixtea izango duk.  
Mendeak eta mendek ditiagu  
aurretik, Gabriel.

ARESTI:

Ados.

*(Duchampek eskua luzatu dio Arestiri)*

DUCHAMP:

Plazer bat izan duk.

ARESTI:

Laster arte.

*(Trapezistak balira bezala elkarri tira egin eta bat alde batera eta bestea bestera joan dira, geldo, hodeien gisara).*

# ZAZPI

*Bizitzaren zentzua azaltzen duten  
irakasleei  
galdetu nien zorionaz.  
Eta milaka pertsonaren lana  
governatzen duten  
exekutibo famakoei hurbildu nintzaien.  
Denek kokotean kolpetxoak eman eta  
barre egiten zidaten  
adarra jotzen ari nintzaiea pentsatuz.  
Eta behinola, domeka arratsalde batez,  
ibai ondoan  
oinez nenbilela hungariar aldra bat  
ikusi nuen zuhaizpean, eta andreak eta  
umeak  
eta garagardo upel bat eta eskusoinua.*

CARL SANDBURG

---

# NAHIKOA DIRA

Zerua goian  
eta lurra behean zaudela,  
etxea suntsituta,

zenbait oroitzapen,  
lagun bakarra,  
asmo bakarra,  
nahikoa dira.

Eta atzera zerotik hasi,  
bide berri bati ekin.

---

# ZELAI BERDEAK

Atsegin ditut zelai berdeak zabaltzen dituzten  
leihoak,  
ezagutzen ez ditudan hiriak, ezagutzen nauten  
drogak.

Atsegin ditut erreboltak, bizikletak, kantuak,  
aintzirak,  
etxe zaharrak, gorputz biluziak, betiko zalantzak,  
elurra.

Atsegin ditut atsegin direnak, egur usaina, neguko  
portuak,  
lehengo kontuak, begirunea, egunez erditzen diren  
gauak.

---

# MOTXAILEAK BURUAN

Gomutan ditut lantzean behin  
elkarrekin bizi izandakoak:  
kartzelako patioko solasaldiak  
Irlandako kostaldeaz, erresistentziaz, kondairez,  
eta zerk egiten gaituen zorigaitzeko  
munduaren alde honetan.

Motxaileak jaiotzen zaizkit buruan  
neguko patio izoztuan kantari.  
Jaiotzen zaizkit xake-jokoak afrikarrekin,  
zigorrek, burusiarekin aireratuz preso laguna  
agurtzen genuen iluntze bakoitza.  
Egun horiek ditut gomutan lantzean behin  
eta zutaz naiz oroitzen.

Ez dira bi minutu igaro  
eta telefonoz deitu didazu.

---

# OROIMEN ARIKETA

«Ez dut negarrez aritzea besterik esku-ahurrak desegin artean» idatzi nuela daukat gogoan.

Carverrek hil baino hilabete bat lehenago erosketetako papertxoan idatzi zuena ere badatorkit: «Gurina, arrautzak, txokolatea...

Antartidara joan ala Australiara?». Uholak dakartzan adar eta plastikozko ontziak dira egun oroitzapenak.

Eta kalean galdu nuen lagunminaren betarte zurbila ere badakarkit. Bere irribarre konplizea.

«Ez dut negarrez aritzea besterik esku-ahurrak desegin artean» idatzi nuela daukat gogoan.

Gordean ditut halaber  
neurria hartu nahia, aldatzeko ahalegina,  
nire mamuekin irauteko premia,

eta denbora arretaz ehundu  
begiekin, malkoekin, eskuekin,  
itzalen luzapenak bizirik harrapa nazan.



---

# PAGOA

Altzoko Imazek pagoa landatu zuen  
Basaitz mendian, andrea ezagututako urtean.

Bizitza osoan arretaz egin zion kontu,  
gerrikoarekin neurria hartuz lantzean-lantzean.

Pello Errotaren esanetan bertso jartzen  
puntakoetarik,  
andrea baino 25 egun lehenago zendu zen, 1893an.

Pagoari zabalera hartzeko, gaur egun  
bost metroko gerrikoa beharko luke agian.

---

## APARTE-APARTEAN

Sei urterekin egin zuten lehen itsasoratzea aitak  
eta osabak,  
eta patroitza Bustio baporean ikasi.  
Gogorrak ziren garai hartako patroiak,

ekaitz egunetan ukabilak estutu eta zerura begira  
«bizarrik badaukazu etorri hona!»  
Jainkoari amenazo egiten zieten horietakoak.

Mutil koskorrak zirenean, igandeko mezetara  
txandaka joan behar izaten zuten lau anaia  
nagusiek,  
traje bakarra baitzen etxean. Bata elizatik etorri,

trajea erantzi, besteari eman  
eta horrela joaten ziren mezetara,  
nor bere orduan, nor bere zapatez.

Umetan, aita itsasotik iristen zen egunean,  
portuko morro luzeenean egoten ginen zain  
mendebaldera begira. Hasieran

ezer ikusten ez bazen ere, laster  
antzematen zuen gutariko batek hodeiertzean  
puntu beltz bat, pixkanaka itsasontzi bilakatzen  
zena.

Ordu beteren buruan heltzen zen ontzia morrora,  
eta bira egiten zuen gure aurrean portura sartzeko.  
Aitak agur egiten zigun eskuaz.

Ontzia igaro orduko, arineketan joaten ginen  
atrakatu behar zuten tokira.

Aita ohean azkenetan zegoela ere

gorazarre egiten zion bizitzari,  
eguna bizi behar dela esaten zigun,  
beti arduratuta ibiliz gero ihes dagiela bizitzak.

Eta agintzen zuen: Beti iparralderago  
joan behar duzue, ez da sarea bota behar  
arraina ziur dagoela dakizuen tokian,

aparte-apartean bilatu behar da,  
daukazuenarekin konformatu gabe.

«Heriotzak ez du irabaziko»

idatzi zuen Dylan Thomasek,  
baina nonoiz irabazten du,  
eta halaxe amatatu zen aitaren bizitza ere,  
  
mendebaldera eginez  
hodeiertzean galtzen zen itsasontzia bezala,  
uberan oroitzapenak marrartzuz.

---

# ITZUL EZAZUE

**E**ta hego haizeak eramango nauen egunean  
itzul ezazue ene gorpua sorterrira,  
ehortzi itsasertzeko adiskideen hilobian,  
gogo oneko jendez inguraturik:  
arrantzalearekin,  
drogazalearekin,  
idazlearekin.

---

# MAIATZA

*Utzi begietara begiratzen.  
Nola zauden jakin nahi dut.*

RAINER W. FASSBINDER

**B**egira, sartu da maiatza,  
Zabaldu du bere betazal urdina portuan.  
Erdu, aspaldian ez dut zure berri izan,  
Ikarati zabilta, ito ditugun katakumeak bezala.  
Erdu eta egingo dugu berba betiko kontuez,  
Atsegin izatearen balioaz,  
Zalantzekin moldatu beharraz,  
Barruan ditugun zuloak nola bete.  
Erdu, sentitu goiza aurpegian,  
Goibel gaudenean dena iruditzen zaigu ospel,  
Adoretsu gaudenean, atzera, papurtu egiten da  
mundua.  
Denok gordetzen dugu betiko besteren alde ezkutu  
bat,  
Dela sekretua, dela akatsa, dela keinua.

Erdu eta larrutuko ditugu irabazleak,  
Zubitik jauzi egin geure buruaz barre.  
Isilik begiratuko diegu portuko garabiei,  
Elkarrekin isilik egotea baita  
Adiskidetasunaren frogarik behinena.  
Erdu nirekin, herriz aldatu nahi dut,  
Nire gorputz hau albo batera utzi  
Eta maskor batean zurekin sartu,  
Gure txikitasunarekin, mangolinoak bezala.  
Erdu, zure zain nago,  
Duela urtebete etendako istorioa jarraituko dugu,  
Ibai ondoko urki zuriek uztai bat gehiago ez balute  
bezala.